

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1.- LAN ERRENTEK GALDU EGIN DUTE ESPAINIAR ESTATUAN,
BAINA EZ EUROPAN

2.- ELAREN PROPOSAMENAK ENPLEGU DUIN ETA
KALITATEZKOAREN ALDE

3.- PENTSIOAK ETA IRAUNKORTASUN FAKTOREA

4.- PROPOSAMENA: GREBA OROKORRA

1.- LAN ERRENTEK GALDU EGIN DUTE ESPAINIAR ESTATUAN, BAINA EZ EUROPAN

“Denok sakrifikatu behar gara krisialdian”, esaten digute. Baina sakrifizioa handiagoa da batzuentzat, edo hobe esanda, sakrifizioa batez ere, batzuentzat bakarrik da. Horixe ondorioztatu daiteke Europako Batasuneko estatu ezberdinentzako joan den maiatzaren 3an Europako Batzordeak publikaturiko ekonomi aurrikuspenetatik. Izan ere, aldagai ezberdinei buruzko informazio garrantzitsua ere publikatu zuen Batzordeak, hala nola, errentaren banaketari buruzkoa.


Langileengana doan aberaztasunaren parte askoz baxuagoa dela espainiar Estatuan 17-EBean edo Euro Gunean baino ikusten da informazio honetan. Zehazki, Estatuan, sorturiko 100 euro bakoitzeko 58,4 joan ziren lan errentetara 2012. ekitaldian, 17-EBn baino 6,6 puntu gutxiago (langileek sorturiko 100 euroko 65 jaso zituzten Euro Gunean). Estatuko langileriak Euro Guneko batezbesteko aberaztasunaren portzentaia berdina jaso izan balu, 70.000 milioi euro jaso izango lituzke 2012an, 4.980 euro soldatapeko langile bakoitzeko.

Batzordearen aurrikuspenek Europako Batasunarekiko eszenatoki are ezberdinagoa marrazten dute 2014 ekitaldirako, Euro Gunean lan errenten partzehartzea mantendu egingo dela aurrikusten baitute, eta 2,1 puntu jaitsi Estatuan, bien arteko aldea 8,5 puntutara igoz.

2005etik lan errentek izandako bilakaera ikus daiteke grafikoan, eta baita 2014rako aurrikuspena ere. Nahikoa da begiratu arin bat hauen bilakaera askoz orekatuagoa izan dela Europan ikusteko, espainiar Estatuan asko jaitsi direlarik. Lan errentek galdu duten

aberaztasunaren partea enpresarial eta kapital errentek jaso dute hemen, egungo krisi egoeran pisua irabazi dutelarik, eta ez dutelarik izan, ikusten denez, sakrifizio handirik egin beharrik.

LAN ERRENTEK PARTEHARTZEA (BPGd %).
EUROPAKO BATASUNA, 2005-2014




Iturria: Europako Batzordea

ALEKO LAN KOSTUA JAITSI EGIN DA ESPAINIAR ESTATUAN, EBn HANDITU DELARIK

Ez da egia lan kostuak larregi igo direnik, ezta hauek jaitea krisialditik irtetzeko konponbidea denik ere. Hori da joan den maiatzaren 3an Europako Batzordeak aleko lan kostuari buruz publikaturiko informazio eta aurrikuspenetatik ondorioztatu daitekeena. Kostu hau, produktibitatea neurtzea posible egiten duena, %7,8a hazi da termino nominaletan 2005 eta 2012 bitartean espainiar Estatuan, Euro Gunean baino 4,6 puntu gutxiago (%12,4 igo da hemen). 27-EB osotik, Irlanda, Grezia eta Portugalen bakarrik eman da Estatuan baino aleko soldata igoera baxuagoa. Hau da, lan kostu igoerarik baxuenak Irlanda, Grezia, Portugal eta

Hurrengo 2 ekitaldietarako aurrikuspenak ere ez dira oso itxaropentsuak, Batzordeak aleko lan kostua %1,5 jaitsiko dela 2012 eta 2014 artean espainiar Estatuan aurrikusten baitu, eta Euro Gunearen %2,5 igoko dela. Berrituz ere, 3 dira aleko lan kostuan jaitsiera izango dutela aurrikusten diren estatuak (Irlanda, Grezia eta Txipre), Portugalentzako %0,4ko hazkundera aurrikusten delarik.


ALEKO LAN KOSTU NOMINALA (2005=100).
EUROPAKO BATASUNA, 2005-2014



Iturria: Europako Batzordea

Aleko lan kostu nominalak aztertu ordez kostu errealak begiratzen baditugu (inflazioa deskontatzen dutenak), hauek % 1,4 hazi direla 2005 eta 2012 bitartean Euro Gunean ikus dezakegu, espainiar Estatuan %3,6 jaitsi diren bitartean.

ALEKO LAN KOSTU ERREALA (2005=100).
EUROPAKO BATASUNA, 2005-2012



Iturria: Europako Batzordea

Laburbilduz, Euro Gunean aleko lan kostua espainiar Estatuan baino nabarmen gehiago hazi da. Lan kostuak murrizteko egungo politikarekin jarraitzeak krisia areagotzen du, gizartea pobretzen, eta hein handi baten, langabezia haziz egiten da. Ezinbestekoa da soldaten igoera Europako Batasunarekiko aipaturiko ezberdintasunak murrizteko. Horretako marjena dago, eta egokia da gizartetzako zein ekonomiarentzako.

2.- ELAREN PROPOSAMENAK ENPLEGU DUIS ETA KALITATEZKOAREN ALDE

Apirilean, Hego Euskal Herrian Enplegu Zerbitzu Publikoetako zerrendetan 233.033 pertsona zegoen inskribatuta, iaz baino 20.232 gehiago. Langabe kopurua urtebetean %9,5 hazi da HEHan; aldiz, %2 EB-27an. Halaber, langabezia tasa HEHn %17,7ra igo da, hots, Europako tasa baino 6,8 puntu handiagoa da. Gainera, sinatzen diren kontratuen %93 aldi baterakoak dira oraindik. Larrizko modukoak ez dira soilik

langabeziaren kopuruak; baita bera jasaten duten pertsonen egoera ere. Hain zuzen, langabeen %46,6ak ez du langabeziako inongo prestaziorik jasotzen, eta %32,9ak baino ez du kontributiboa jasotzen.

Doikuntza politikak eta erreformak langabezia eta babesgabezia soziala areagotzea baino ez dakarte.

Honen harira, joan den martxoaren bukaeran Eusko Jaurlaritzak bere Enplegu Plana aurkeztu zuen.

Bere edukia aztertuta ELAn argi daukagu, Eusko Jaurlaritzaren hasiera, enpleguari dagokionez, ezin baino okerragoa da. Aurrekontuak murrizteaz -honek langabezia haztea dakarrelarik- eta enplegu publikoa suntsitzeaz gainera, Enplegu Plan hutsa bat aurkeztu du, lausoa, kontinuita, errealista ez dena, parte hartze sozialik gabe eginikoa, lau urtetarako alegiazko aurrekontu batekin, estimazio eta proiektioetan enplegua sortu eta mantentzeari buruzko datuetan oinarritua eta langabezia eta pobrezia hazkundera eragin duten politiken berrespena suposatzen duena.

Plan honen benetako funtsa kezka itxura eman eta arazoari azkar heldu nahi zaiola adieraztea da. Langabezia koartada da, ez helburua. Jaurlaritzaren langabeziarekiko kezka erretorika hutsa da. Kasurik hoberenean, Jaurlaritzarentzat langabezia bere politikaren "albo-efektu" bat da. Bere kezka benetakoa balitz, aurrekontu eta zerga politikak errotik aldatuko lituzke.

Errealitate honen aurrean ELAn enplegu duin eta kalitatezkoaren aldekoa porposamenak baditugu:

1. Aurrekontu- eta zerga-politikei dagokienez

erabateko aldaketa egin behar da.

2. Arlo publikoa garatu behar da, batik bat Ongizate Estatuarekin zerikusia duten zerbitzuak. Hego Euskal Herrian gastu publikoa gizarte-babesari dagokionez (BPGaren %24,5) batez besteko tasa europarra (% 29,4) baino askoz txikiagoa da, eta honek gizarte-babesaren eta enpleguaren maila jaitsi arazten du. Enplegu publiko maila gehitu behar da hainbat arlotan: osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, garraioa, etab. Gizarte-babesa hobetzeak kalitatezko enplegu gehiago izateko aukera ematen du.

3. Lanaldi murrizketa, soldata jaitsierarik gabe. Langabeziaren gorakadaren ondorioz produktibitatea asko hazi da, eta honen fruitua enpresen etekinetan metatzen da. Hots, aberastasunaren banaketan lan-errenten zatia gero eta txikiagoa da, enpresarioen eta kapitalaren errenten mesedetan. Lanaldia 35 ordura jaitea, soldata murrizketarik gabe, enplegua sortzeko politika bat da, eta erabat egingarria da aberastasunaren banaketa justuagoa izatea onartuz gero.

4. KPIz gaindiko soldata igoerak eta gizarte-babeseko maila duinak.

5. Gutxieneko soldata duina eta gehienezko errenta ezartzea. Gutxieneko soldata lan- eta bizi-baldintza duinak bermatzeko tresna izan beharko litzateke. Haatik, espainiar estatuan finkatutako zenbatekoa (hileko 645,3 euro, edota 748,3, aparteko pagan zati proportzionala aintzat hartuz gero) oso eskasa da, inondik ere. Gainera, Frantzia, Herbehereak, Irlanda edo Belgikako 1.400 euroak baino askoz apalagoa da, eta zer esanik ez, Luxemburgoko 1.800 euroak baino. Beharrezkoa litzateke ere gehienezko diru-

sarrera baimendu bat finkatzea, aberastasuna esku gutxitan pila ez dadin. Auzi honek justiziarekin, demokraziarekin eta Lurrari izan beharreko errespetuarekin du zerikusia (mugak ezarri behar zaizkio planeta mugatu honek jasaten duen harrapaketari).

6. Finantza-erakundeen jarduna erabat aldatzea. Aurrezki-Kutxen bankarizazioan atzera egin behar da (Kutxabank, CAN). Halaber, finantza-sistemaren jardunbideari beste norabide bat eman behar zaio, familientzako eta enpresentzako kreditua eman dezan, espekulazioa alde batera utzita eta zerga-ebasioarekin zerikusia duten aktibitateak debekatuz (paradisu fiskalak). Euskal enpresa askoren arazoa kreditu gabezia da; hau mehatxua bihurtu da baita enpresa sendoentzat ere, etorkizuna duten produktuak izan arren. Egungo finantza-sistemak ez ditu dauden beharrianak asetzen, baztertu beharrekoak diren jarduera espekulatiboen ondorioz.

7. Industri-politika. Finantziarioa bermatu behar da (inbertsioetarako, I+G+Brako edota zirkulanterako), proiektua eta etorkizuneko produktua duten enpresentzat. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta Nafar gobernuak sektore estrategikoak definitu beharko lituzkete, eta horrekin batera, hauek bultzatzeko plan konkrituak. Produktu osagarriak eskaintzen dituzten enpresen artean sinergiak bultzatzeko proiektu eta planak ezinbestekoak dira.

8. Enplegu berdea sustatzea.

9. Azken urteetan erabaki diren pentsio erreformak indargabetzea

10. Enplegu-Zerbitzu Publiko sendoa eta kalitatezko formazio eredu bat garatzea, HEHko beharrian errealak asetzeko.

<http://www.ela-sindikatu.org/eu/atalak/azterketa-bulegoa/dokumentuak/enpleguaplana.pdf>

3.- PENSIOAK ETA IRAUNKORTASUN FAKTOREA

Hemendik gutxira pentsioen erreforma berri bat aprobatuko da, iraunkortasun faktorearen edukia zehaztuko duena. Rajoyren gobernuak apirilean ildo nagusiak aurreratu zituen, aldagai ezberdinetan aurreikuspenean oinarrituta (bizi-itxaropena edota indize demografiko eta ekonomikoen bilakaera kasu) pentsio sistemaren parametro guztiak edo batzuk aldatzea.

Esan daiteke gobernuaren asmoa pentsioen beste murrizketa gogor bat egitea dela. Gobernuak egindako dokumentuaren arabera iraunkortasun faktoreak pentsioak kalkulatzeko formula, erretiro adina eta pentsioen aguneratzean aldaketak egitea dakar.

Pentsioen zenabtekoari dagokionez:

- Oinarri arautzailearen %100era iristeko kotizatu beharreko urte kopurua gehitzea.
- Oinarri arautzailearen kalkuluan aintzat hartutako epealdia luzatzea, gaur 25 urte.
- Aipatutako epealdian egindako kotizazioak eguneratzeko formula aldatzea. (Gaur egun aurreko urteetako kotizazioak KPIaren arabera eguneratzen dira).

Erretiro adina atzeratzeaz:

- Erretiroa hartzeko kotizatutako beharrezkoa den urte kopurua gehitzea. Horrela jubilazioa atzeratu

egiten da erretiro aurreratu eta partzialak izanda ere.

- Erretiro adina areago atzeratzea, 67 urtetatik gora.

Pentsioen eguneratzeari buruz, gainera, pentsio bat jasotzen duten pertsonen erosteko ahalmenak etengabeko galera izatea lortuko dute. Azken urteetan ez Zapaterol ez Rajoyk, legeak ezartzen duenaren aurka, ez dute pentsioen gaineko eguneraketarik egin, eta egitear dagoen erreformak ahalbideratuko du eguneraketa adierazgarririk ez izateak pentsioak BPG baino gutxiago haztea edo gutxitzea.

Honetan ere murrizketen beharra, Europar Batasuneko beste estatu batzuetan aplikatutako pentsio erreformak dituzte oinarri hau da, beste eredu batzuk kopiatzen dituzte, hoiengatik porrota onartu gabe, Alemania kasu. Eredu hoiengatik pentsioa kalkulatzeko bizitza laboral guztia aintzat hartzen dute, Kotizazio-tipoak ez dituzte gehitzen, pentsioaren %100 jasotzeko kotizazio urte kopuru handiagoa exijitzen dute, erretiro adin legala gehitzea, baita malgutzea ere, pizgarri eta penalizazio sistema bat dela medio eta erretiro-pentsioa eta lana bateragarri izatea bultzatzen dute etab.

Horrela, erretiro duina baino, gizartearen txirotze orokorra baino ez da lortuko.

Horregatik, ELAk salatu egiten du egungo ongizate-estatua finantzatu ezineko zerbait dela dioen filosofia hori, gezurra baita. Oraingoan ere aberastasunaren banaketaz ari gara. Berehala eta ezinbestekoa da bestelako aurrekontu- eta zerga-politika bat martxan jartzea. Zergatik ez pentsioen zati bat zerga bidez finantziatzea?

Hego Euskal Herrian bizi garenon pentsioei

buruzko erabakiak bertan hartu behar dira, HEHrako eredu propio bat nahi dugu, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa ekar dezakeena.

http://www.ela-sindikatu.org/eu/aktualitatea/albisteak/gobernua-pentsio-sistema-publikoari-egiteko-den-beste-erako-baterako-prestatzen-ari-da-agertokia?set_language=eu

4.- PROPOSAMENA: GREBA OROKORRA

Politikak aldatzekotan, gizarteak presio handia egin behar du; horretarako lehenik kezka bat hedatu behar da, gertatzen ari dena bidegabea dela, eta beste mezu bat, alternatibak badaudela. Horrekin batera, beharrezkoa da mobilizazio masiboa, luzaz irauten duena; konpromisoa hartu eta kaleratu beharra dago aldaketa hori aldarrikatzera.

Greba orokorra da sindikatuok eta gizarte-mugimenduok daukagun tresnarik indartsuena. Ia inork ez du zalantzan jartzen mobilizazioak edota grebak deitzeko arrazoi aski dagoenik: aurrekontu murrizketak, eskubide laboral eta sozialei (soldatak, enplegua, negozio kolektiborako eskubidea, langabezia prestazioak, pentsioak eta beste gizarte-prestazio batzuk) egiten dieten erasoak, bankuei dirutza ematen zaien bitartean... Beraz, greba orokorrerako arrazoi ugari daukagu. Agintzen dutenek egunero ematen digute arrazoiren bat.

Buletin honen aurreko aleetan borrokatzeko eta errebindikatzeko beste modu batzuk aintzat hartu izan ditugu, esaterako SAT nekazarien sindikatu andaluziarraren ekintzak edota *escracheak*. Desobedientzia zibil ez bortitza oso positiboa da. Hartara,

desobedientzia ekintza bihurtu den greba orokorrak, zeinak zigor ekonomikoa dakarren berarekin, badu beste ezaugarri bat: ekintza masiboa da, non gizartearen zati handi batek parte har dezakeen, eta parte hartzen duen.

Hego Euskal Herrian deitu izan diren azken greba orokorretan, eta hau ez da gehiegi esatea, ehunka milaka pertsonak hartu dute parte, beren lantokian greba eginez edota manifestazio erraldoietan parte hartuz, hauetan era guztietako herritarrak biltzen direlarik: lanean ari direnak, langabeak, erretiratuak... Soilik joan den irailaren 26an kaleetan eta enpresetan gertatu zenak greba orokorraren balioa kontutan izatera eraman beharko luke edonor.

Greba orokorrak politikoak dira, ezinbestean. Politika ez da lau urtean behin botoa emanda bukatzen; politika ez da hauteskunde bitartean telebistari begira egotea. Politika, demokrazia, egunez egun erabakietan parte hartzea da. Gure iritzia esateko eskubidea dugu: gertatzen ari dena ez dugu onartzen, eta aldaketaren beharra dago. Greba orokorra demokrazia ariketa itzela da. Eta demokrazia aldarrikatzeko gero eta behar handiagoa dugu. Greba orokorraren aurka daudenek sinestarazi nahi digute ezartzen den politikak ez duela alternatibarik; alegia, gobernuek Madrilen, Gasteizen, Iruñean, Bilbon zein Donostian erabakitzen dutena onartu beste biderik ez dagoela. Eta hori ez da egia.

Greba orokorra baliagarria da, oso baliagarria, pertsonen gogoan eragiteko, klase-kontzientzia pizteko. Greba orokorrak gure kontzientziario prozesuan aurrera egiteko dira, langile-klasearen parte garelako sentipena finkatzen dute.

Greba orokorrak politika aldatzea ekarriko du? Behar bada epe laburrean ez. Baina eragile sozial eta politikoen artean bestelako indar-erlazio bat lortzeko funtsezkoak dira. Epe ertain eta luzera greba orokorrak funtsezko tresna ditugu gero eta jende gehiago jabetzeko gertatzen ari denak alternatibarik baduela, gero eta herritar gehiagok sinets dezan borrokaren bidez gauzak aldatzea posible dela. Hots, greba estrategia baten baitan egiten da, eta estrategia horren helburua oraingo oreka sozial eta politikoa aldatzea da.

Greba orokorrean herritarren artean ikusteko moduan agertzen da eguneroko bizitzan komunikabide nagusietan ia oharkabean egoten dena: Langabezia, prekarietatea, osasun zerbitzu publikoen eraispena, hipoteka edo errenta ordaintzeko moduan ez dagoelako etxebizitza galtzen duen jendea... Hain zuzen langabezia, prekarietatea eta patroien abusuak dira botere ekonomiko eta politikoaren piketeak. Jendearen beldurraz baliatzen dira grebara ateratzeak izan ditzakeen ondorio larriekin mehatxu egiteko.

Beraz, greba orokorra behar-beharrezko tresna da, baita izango ere, gauzak aldatzea nahi izanik, hori lortzeko zerbait egiteko prest dagoen jendearentzat.